

**ETXEBIZITZA LIBRE
ERABILIA**

ESKURATZEKO

**FINANTZA
LAGUNTZAK**

GIDALIBURUA

✓ Erraza egiten dizugu ✓

Aurkezpena

Etxebizitza bat erosten pentsatzen bazabiltza eta Eusko Jaurlaritzak martxan jarri duen Etxebizitza Libre Erabilia Eskuratzeko Finantza-Laguntzen Programan interesatua bazaude, laguntza eskari-orria bete aurretik **Gidaliburu** hau irakurtzea gomendatzen dizugu ongi informatzen, laguntza programa zehazki zertan datzan eta akatsik ez egiten lagun zaitzan.

Bi atal handitan zatitua dago:

- [Etxebizitza Libre Erabilia Erosteko Finantza-Laguntzen Sarrera](#)
- [Nola bete eskari-orria, urratsez urrats](#)

Testuan **urdinez** dauden hitzak aurkituko dituzu, beraietan sakatuz gero beraiei buruzko informazio osagarria lortuko duzularik, honako sailaren batetara bideratuz: Gidaliburuaren beste atal batzuetara; Etxebizitzako Hiztegira edo www.etxebide.info Atariko beste atal batzuetara edota dagokion Araudira bidaliko zaituelarik.

Gidaliburu honen edukia jarraitzea erraza izango zaizula espero dugu eta Gida eraginkor gisa balio izatea sortzen joaten zaizkizun zalantzak argitzeko.

Aurkibidea

I . Etxebizitza Libre Erabilia Eskuratzeko Finantza-Laguntzen

Sarrera:

1. [Zeri deitzen diogu Etxebizitza Libre Erabilia?](#)
2. [Noiz uste da etxebizitza erabilia dagoela?](#)
3. [Etxebizitzak bete behar dituen baldintzak](#)
4. [Zer-nolakoak dira laguntzak?](#)
5. [Noiz eskatu behar dira diru-laguntzak?](#)
6. [Nork eska ditzake laguntzak?](#)
7. [Noiz eta nola eska ditzakezu?](#)
8. [Jaso daitekeen gehienezko diru-laguntza](#)
9. [Zer nolako konpromisoak beti behar dira ondoren?](#)
10. [Laguntzak emateko jarraitzen den prozedura](#)

II . Eskari-orria nola bete, urratsez urrats:

I Atala. Eskuratzeko den Etxebizitza Erabiliaren Datuak:

- 1.1. [Kokapena](#)
- 1.2. [OHZ zk. finkoa: Zertan datza eta nola lortu daiteke](#)
- 1.3. [Erreferentziako adibidea](#)

II Atala. Eskatzaileak:

1go Koadroa: Eskatzailearen datuak:

- 2.1. [Nor izan daiteke eskatzailea eta zer nolako inplikazioak dauzka?](#)
- 2.2. [e-mail helbidearen erabilgarritasuna](#)
- 2.3 [Norberaren identifikazio dokumentazio](#)
- 2.4. [Bizilekuaren helbidea. Bere garrantzia eta zer egin behar den berau aldatzen bada](#)
- 2.5. [Erreferentziako adibidea](#)

2go koadroa: Ezkontide edo bikotekidearen datuak:

2.6. [Ezkontide edo bikotekidearen nortasuna eta datuak](#)

2.7. [Erreferentziako adibidea](#)

III Atala. Elkarbizitza-Unitatea eta titularrak:

3.1. [Eskatzaile; elkarbizitza unitateko kide eta titular figuren arteko ezberdintasuna](#)

3.2. [Etxebizitzaren titular gisa agertzeko orduan kontuan izan beharreko gaiak](#)

3.3. [Titularrak izango ez direnak, derrigorrez sartu behar dira laguntzen eskari-orrian?](#)

3.4. [Erreferentziako adibidea](#)

IV Atala. Beste betekizun batzuk- Etxebizitza beharra:

4.1. [Nortzuek egiaztatu behar dute etxebizitza premia?](#)

4.2. [Zer gertatzen da izena eman dutenetakoren bat etxebizitza baten jabea izan bada orain dagoeneko ez delarik?](#)

4.3. [Etxebizitza eduki arren, badago salbuespenik diru-laguntzak eskatzeko aukera ematen duena?](#)

4.4. [Salbuespeneko egoerak egiaztatzeke aurkeztu beharreko agiriak. Nola lortu daitezke?](#)

4.5. [Zer gertatzen da elkarbizitza-unitatekoren bat azken 10 urteotan etxebizitza eskuratzeko diru-laguntzaren baten onuraduna izan bada?](#)

4.6. [Erreferentziako adibidea](#)

V Atala. Aurkeztu beharreko Agiriak:

5.1. [Agirien xehetasuna eta berau ez daukagun kasuetan nola eskuratu](#)

5.2. [Eskabide bakoitzaren egoera partikularren arabera eskatutako agiriak](#)

5.3. [Data eta sinadura](#)

1go Atala

Etxebizitza Libre Erabilia Eskuratzeko Finantza-Laguntzen Sarrera:

1. Zeri deitzen diogu Etxebizitza Libre Erabilia?

[Babes Publikoko Etxebizitzak \(BPE\)](#) ez diren eta Administrazio Publiko edo Instituzionalek saltzen ez dituzten etxebizitza orok etxebizitza libreak dira; hau da, administrazioak babes publikoko etxebizitzatzat kalifikatu ez, eta sustatzaileak bere kabuz sustatu eta saltzen dituenak dira.


Libre gisa kalifikatzen dira, alderdiek lehen zein ondorengo eskualdatzeetan inongo berariazko baldintzarik gabe eta etxebizitzaren prezioari buruzko inongo mugarik gabe eskualdatu ditzaketelako. **Eskaintza eta eskaeraren menpe daude** bakar-bakarrik.

[Aurkibidea](#)

2. Noiz uste da etxebizitza erabilia dagoela?

Orokorrean, sustatzaileak etxebizitzen lehen erabilera-eskualdatzea egin duenean, etxebizitza horiek "erabilitzat" hartzen dira.

Etxebizitza Libre Erabilia Erosteko Laguntzen Programak, ordea, gehiago zehazten du eta erabilitzat ondoko baldintzak betetzen dituen etxebizitza hartzen du: **sustatzailea ez den beste edonork eskualdatutako** etxebizitza izateaz gain, bere jabeak, erabiltzeko eta baliatzeko eskubide errealen titularrek, edo erosteko aukerarik gabeko errentariek **gutxienez bi urtez etenik gabe erabili ondoren saldua izatea**. Eroslea, gainera, ezin da izan aipatutako epe horretan etxebizitza erabili zuen berbera.



[Aurkibidea](#)

3. Etxebizitzak bete behar dituen baldintzak:

→ 1. Kokapena:

Etxebizitza libre horrek diru-laguntzak jaso ahalko ditu, betiere etxebizitza hori:

- 3.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrietan baldin badago (2006ko abenduaren 29ko, etxebizitza erosteko finantza-neurriei buruzko Aginduaren I.ERANSKINA)
- 3.000 biztanle baino gehiago dituzten Birgaitze Integratuko Arearen batean (BIA) badago. (2006ko abenduaren 29ko, etxebizitza erosteko finantza-neurriei buruzko Aginduaren II.ERANSKINA)

→ 2. Prezioa:

Etxebizitza eta [eranskinen](#) salmenta-prezioa eta hauen [tasazio](#)-balioa mugatuta daude. Muga hau bai **m2-ko prezioan** nola **etxebizitza osoaren prezioan** ematen da, gehienezko balioak etxebizitza zein udalerritan kokatua dagoen arabera aldatu daitezkeelarik. Argi ikusi ahalko duzu aurkezten dugun ondorengo koadroan:

m ² erabilgarriko gehienezko prezioa	Etxebizitza osoaren gehienezko prezioa	Prezio bakoitza aplikatzen den Udalerrien zehaztasuna
2.295, 00 €/ m ²	210.335, 00 €	BIA-tan kokatuko etxebizitzak. (II.Eranskina)
1.985, 00 €/ m ²	170.000, 00 €	3.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan kokaturiko etxebizitzak (I. Eranskina)
536, 00 €/ m ²	-----	*Etxebizitzari lotutako eranskinak

*Etxebizitzari lotuak ez dauden eranskinak ez dute inolaz ere dirulaguntzarik jasoko; ez dira kontuan hartuko azken prezioa aztertzeko orduan

Beraz, eskaera onartua izateko, etxebizitzak **parametro biak bete** behar ditu:

- m² erabilgarriko gehienezko prezioa
- Gehienezko prezioa osotara

→ 3. Bizigarritasun baldintzak

Etxebizitzak Urbanizatua eta Eraikia Birgaitzeko Jarduera Babestuei buruzko 317/2002 Dekretuaren IV. eranskinean adierazitako **[bizigarritasun-baldintzak bete behar ditu.](#)**

Dena dela, etxebizitzak ez balitu bizigarritasun baldintzak beteko, oraindik ere diru-laguntza eskuratzeko aukera edukiko luke:

- Horretarako birgaitze-proiektu bat aurkeztu beharko duzu, gehienez ere urtebeteko epea duzularik, laguntzen emate-ebazpena ematen denetik kontaktzen hasita.

Horri dagokionez, kontuan izan behar duzu gainera, proiektu horren gauzatzea ondare [urbanizatu eta eraikiaren birgaitze-arloan ezarritako finantza- neurrien bitartez babestu](#) ahal izango da.

Birgaitze-proiektu hori adierazitako epean ez aurkezteak edota obren amaierako ziurtagiria kontratua ikusonetsi eta bi urteko epean ez aurkezteak jasotako anura ekonomiko guztiak itzuli beharra ekarriko

du, dagozkien interesekin (indarrean dagoen legezko tasaren arabera).

→ Esandakoarekin batera, garrantzizkoa da baita ondorengo betekizunak ere kontuan izatea:


- Ez da **antolamenduz kanpo** egon behar
- **Laguntzak etxebizitza bat baino ez** erosteko lortuko dira bakarrik.
- Etxebizitza **ohiko bizileku iraunkorra** izan beharko da.

[Aurkibidea](#)

4. Zer-nolakoak dira laguntzak?

Itzulik beharrik gabeko dirulaguntza da. Hau da, Eusko Jaurlaritzak etxebizitza libre erabilia erosteko diru kopuru bat ematen dizu.

Dirulaguntzaren zenbatekoa etxebizitzaren **tasazio** balioaren arabera kalkulatu da, salmenta-prezioa txikiagoa ez bada, azken kasu honetan kalkulua prezio horrekin egingo delarik. Kalkulua ehuneko hauen arabera egingo da:



Eskatzaileek ehuneko horietako batzuen onuradun izateko baldintzak betez gero, **ehunekorik onuragarriena** aplikatuko zaie. Dena dela, diru kopuru horiek ezingo dira inolaz ere eskatzaileen diru sarreraren arabera ezarri diren [gehieneko diru laguntzen zenbatekoak](#) baino handiagoak izan.

[Aurkibidea](#)

5. Noiz eskatu behar dira dirulaguntzak?

Hau kontuan izan beharreko garrantzizko datua da, etxebizitza libre erabilia erosteko **dirulaguntza eskuratu ahal izateko eskatzen den nahitaezko betekizun bat** delako:

“Nolanahi ere, laguntzak eskatzen dituzun unean salerosketa-eskritura publikoa oraindik ez da sinatuta egon behar”

Beraz, laguntzak saltzailearekin akordio batera heldu eta salerosketa **kontratu pribatua** sinatu ondoren (bertan [derrigorrezko klausulak](#) jasoko direlarik) eskatu beharko dituzu, **baina inolaz ere salerosketa-eskritura publikoa sinatu ondoren.**

Exijentzia hau ondoko arrazoiari sor zaio: Dirulaguntza ematen badizute, derrigorrezkoa da salerosketa-eskritura publikoan Eusko Jaurlaritzak etxebizitza libre erabilia erosteko dirulaguntza eman dizula zehazki agertzea eta baita horren ondorioz bete beharreko [derrigorrezko klausulak](#) ere. Beraz, eskritura sinatu baino lehen dirulaguntzen onuraduna izan zaren ala ez jakin behar duzu.

[Aurkibidea](#)

6. Nork eska ditzake laguntzak?:

Eskaera onartua izateko, eta ondorioz dirulaguntzen onuraduna izateko, [etxebizitzak bete behar dituen betekizunez](#) gain, zuk zeuk ondorengo betekizunak dagokizun agiriekin betetzen dituzula frogatu beharko duzu:



- **Ez zuk ezta etxebizitzan zurekin biziko den inork** gaur egun ez du izan behar etxebizitza baten jabetza, [azalera-eskubidea](#) edo [gozamen eskubidea](#).
- Dena dela, etxebizitza libre erabilia erosteko laguntzen programan honako salbuespena jasotzen da: **etxebizitza baten kotitularea** bazara, eta jabetza osoa eskuratu nahi baduzu, betiere gainontzeko baldintzak betetzen badituzu, diru-laguntza zuzenak eskuratzeko aukera izango duzu.
- **Ez zu ezta etxebizitzan zurekin biziko den inor** azken bi urteetan ezin zarete izan beste edozein etxebizitzaren azalera-eskubide edo gozamen eskubide baten jabe edo titular, edo [babes publikoko etxebizitza](#) esleipendun.
- Gutxienez urtean 3.000 euroko diru-sarrerak edukitzea frogatzeko eskatuko da.
- Etxebizitzaren titular izango direnen **gehienezko** [diru-sarrera haztatuek](#) ez dute **33.000,00 euroko** zenbateko gainditu behar.

Bestaldetik, kontuan izan behar duzu, gaur egun zuk edota titularren batek **Etxebiden izena eman** badu, salerosketa kontratu bat sinatzekotan, laguntzak eman edo ez eman, zuzenean bajaran emango zitzaiola Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan, etxebizitza baten jabea izango zelako, eta ondorioz, ez luke Etxebiden izena emateko exijitzen den etxebizitza premiaren betekizuna beteko.

7. Noiz eta nola eska ditzakezu?

Laguntzen Programa honetan aukera izateko, Etxebizitza Libre Erabilia Eskuratzeko Finantza Laguntzen Eskari-Orria bete beharko duzu eta eskarian bertan eskatzen zaizkizun agiriekin [Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzan](#) entregatu.

Dena dela, jarraian eman beharreko urratsak azaltzen dizkizugu:

1. Eskaria eskuratu:

Eskaria eskuratu ahal izateko, ondoko aukera ezberdinak dituzu:

1go aukera: www.etxebide.info Ataritik zure ordenagailuan deskargatu dezakezu zuzenean: [Etxebizitza Libre Erabilia Erosteko Laguntzen Online Eskaria](#)

2garren aukera Dagokizun [Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzan](#) eskatu

3garren aukera **012** telefono zenbakira deitu eta postaz bidaltzea eskatu.

2. Eskaera bete eta bertan eskatzen zaizun dokumentazio guztia bildu.

1go urratsa Bai eskatzaileek bete behar dituzuen nola etxebizitza bete behar dituen **baldintzak** arretaz irakurri.

2garren urratsa Eskaerarekin batera aurkeztu behar duzun dokumentazio guztia bildu.

3garren urratsa Eskaera bete, hemen ematen dizkizugun jarraibideak jarraituz. Gogora ezazu zure ordenagailutik bete eta ondoren inprimatu dezakezula.

3. Entregatu

Behin eskaera bete eta dokumentazioa bildu ondoren, ondoko aukerak dituzu entregatzeko:

1go Aukera.- [Etxebizitza Ordezkaritzan](#) **pertsonalki** entregatzea.

2garren Aukera.- Zure Lurraldeko Etxebizitza Ordezkaritzara **posta zertifikatuaren** bitartez bidali. Kasu honetan, bidalketa egiaztagiria gordetzea gomendatzen dizugu, eskaria noiz entregatu duzun frogatu ahal izateko.

Oharra: Oraingoz, ez da posible eskaria Interneten bidez zuzenean bidaltzea.

[Aurkibidea](#)

8. Jaso daitekeen gehienezko dirulaguntza

Dagoeneko aipatu dugu dirulaguntzaren zenbatekoa etxebizitzaren [tasazio](#) balioaren arabera kalkulatuko dugula, baina horrez gain, eskatzaileen [diru sarrera haztatuak](#) bere eragina izango dute ere.

Dirulaguntza publikoa izanik, diru sarrera gutxien dutenei lagundu nahi zaie, eta ondorioz, gehienezko dirulaguntzak diru sarrera gutxien dituztenek jasoko dute soilik.

Ondoko taulan emango diren gehienezko mugak jasotzen dira, norberak jaso dezakeen gehienezko dirulaguntza kalkulatzeko posiblea izanik:

DIRU-SARRERA HAZTATUAK	Diru laguntzen muga orokorra	BIE / 35 urtez beherakoak Diru laguntzen muga	Famili Ugariak Diru laguntzen muga
21.000, 00 €-raino	7.935, 00 €	9.015,00 €	10.098,00 €

21.001,00 €-tik
33.000,00 €-ralno

3.606,00 €

4.329,00 €

4.684,00 €

- **Diru laguntza emateko hartuko den gehienezko azalera**

Dena dela, lortuko zenuke diru-laguntzaren zenbateko kalkulatzekoan, jakin ezazu diru-laguntza jasotzeko baldintzak betetzen dituzten etxebizitza libre erabilien azalera erabilgarria edozein izanik ere, etxebizitza libre erabilien edo haiei loturiko eranskinen azalera erabilgarriaren 90 m²-ko azalera eskuratzeko soilik emango dela diru-laguntza, familia ugariak erosi beharreko etxebizitzetarako izan ezik. Kasu horretan, etxebizitzaren azalera erabilgarria 120 m²-koa izan daiteke, diruz laguntzeari dagokionez.

[Aurkibidea](#)

9. Zer nolako konpromisoak beti behar dira ondoren?

Itzuli ez beharreko dirulaguntza jasoko bazenu, ondorengo konpromisoak bete beharko zenituzke:

ETXEBIZITZA ESKURATZEN DUENAREN ETA BIZIKIDETZA UNITATEKO KIDEEEN SALEROSKETA KONTRATUKO DERRIGORREZKO KLAUSULAK

1. Laguntza jasoko duen etxebizitza zure [ohiko bizileku iraunkorra](#) izango da.
2. Laguntza jasoko duen **etxebizitzan bizitzen** hasteko izango duzun **gehienezko epea hiru hilabetekoa** izango da. Epea zure eskaerarekiko baiezeko [ebazpena](#) argitaratzen den unean hasiko da.
3. Laguntza jaso duen etxebizitza ezin **izango duzu eskualdatu (inter vivos lagapena) 10 urteko epean**, eskritura formalizatzen denetik kontatzen hasita.

Dena dela, mugaketa hau desagertu liteke, **jasotako laguntza** dagokion interes legalarekin **Administrazioari itzuliko bazenio**.

Ildo honetan, ez da eskualdaketatzat hartuko honako kasu hauetan etxebizitza osoa titularkide bati esleitzea: ezkontza-banantzeen edo dibortzioen edo izatezko bikoteek harremana bertan behera uztearen eta lehen mailako odolkidetasuneko kideek bizikidetza-unitatea apurtzearen ondorioz.

Konpromiso hauek dagokizun [Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzan egiaztatu](#) beharko dituzu, horretarako, **gehienezko hiru hilabeteko** epean ondoko agiriak aurkeztu beharko dituzularik:

- **Salerosketa-eskritura publikoko** kopia single bat. Bertan, **kontratu pribatuan** bezala, ondo klausula agertu beharko da:


“Etxebizitza eskuratzen duenak konpromiso hau du bere gain: laguntzen xede den etxebizitza **bizileku ohiko eta iraunkor gisa** erabiltzea, eta salerosketa-eskritura sinatzen denetik hasi eta **hiru hilabeteko epean** bertan bizitzen jartzea. Adierazitako hiru hilabeteko epean ordezkari honetan aurkeztuko duen udal-ziurtagiriaren bidez justifikatuko du bertan bizi dela, eta badaki betebeharrak ez badu emandako laguntza guztiak itzuli egin beharko dituela.”

- **Jabetzaren Erregistroko ziurtagiria** non etxebizitza Erregistroan inskribatu dela ziurtatzen den. Inskribapena egiterakoan, ondorengo muga jaso beharko da: **etxebizitza ezin izango dela eskualdatu 10 urteko epean, eskritura formalizatzen denetik kontatzen hasita.**
- Zu eta laguntzak jaso dituen etxebizitzaren gainontzeko titularrak etxebizitza horretan bizi zaretela egiaztatzen duen **Erroldatze Ziurtagaria**. Horrela etxebizitza ohiko bizileku iraunkorra dela egiaztatuko duzu.

Dena dela, zure eskariarekiko ebazpena baiezkoa balitz, une bakoitzean eman beharreko urratsez informatuko litzaizuke.

[Aurkibidea](#)

10. Laguntzak emateko jarraitzen den prozedura



2.garren ATALA

Eskaria nola bete, urratsez urrats

Aurkezpena

Egindako aurkezpenaren ondoren, exijitzen diren betebeharrak guztiak betetzen dituzula ikusi baduzu eta Etxebizitza Libre Erabilia Eskuratzeko laguntzen onuraduna izateko aukera duzula frogatu baduzu, jarraian aurkezten dizkizugun aholkuak jarraitzea gomendatzen dizugu, tramite hau erraz bete dezazun eta saihesgarriak diren akatsak ekidin ditzazun.

Eskaera betetzen dutenek aurkitzen dituzten zailtasunei buruz eta akats arruntenen inguruan dugun esperientzian oinarrituz, sarrienetan sortzen diren arazoak ondo nabarmendu eta azaldu izana espero dugu.

Gainera, teknologi berriak eskaintzen dituzten abantaileri esker, zenbait simulazio eta elementu lagungarriak garatu ahal izan ditugu, eta Eskaera zuzenean bete ahalko duzu ordenagailuan, idazkera argiaz, dudarik gabe, zalantza eta akats asko saihesteko lagungarria izango dena.

Beraz, jarraian, Eskaria osatzen duten saila eta koadro guztiak azalduko ditugu, eta formularioan hutsune bakoitzak duen orden bera jarraituz, kontuan izan beharreko gauza guztiak azpimarratuko ditugu, ze informazio eskatzen den ondo ulertzeko erabilgarria izan daitezkeen azalpen guztiak eskainiz.

Era berean, atal bakoitzaren bukaeran, eskaria zuzen beterik nola geldituko litzatekeen adibide bat aurkezten dizugu.

Azkenik, gidaliburuaren bukaeran datuen eta Eskari bakoitzaren ezaugarrien arabera aurkeztu behar den dokumentazio guztiaren laburpen zehatza aurkituko duzu.

[Aurkibidea](#)

I Atala. Eskuratzeko den Etxebizitza Libre Erabiliaren Datuak

1.1 Kokapena

Atal honetan, erostea aurreikusi duzun etxebizitzaren helbidea idatzi beharko duzu.

Garrantzikoa da eskatzen zaizkizun datu guztiak zuzen ematea. Kontuan izan laguntzak emateko orduan etxebizitzarekiko onartzen diren gehieneko prezioak frogatzerakoan, [etxebizitza zein udalerritan kokatzen den arabera aldatu daitezkeela](#).

Era berean, gogoan izan etxebizitza [BIE \(Birgaitze Integratuko Eremua\)](#) batean aurkitzen bada, onartuko den gehieneko prezioa altuagoa izango dela, egoera hori dagokion agiriekin egiaztatu beharko duzularik.

[Aurkibidea](#)

1.2 OHZ zk. Finkoa: Zertan datza eta nola lortu daiteke

OHZ- Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga, udalari urtero ordaindu beharreko Udal Zerga da: etxebizitzaren edo hiri edo landa onibarren jabe guztiak zergapetzen ditu.

Ohizkoena Udaletxea berak ordainketaren ordainagiria etxera bidaltzea da eta bertan etxebizitzaren erreferentzia zenbakia jasotzen da.

Beraz, etxebizitza saldu behar dizuetenei eskatu beharreko datu bat da.

[Aurkibidea](#)

1.3 Erreferentziako adibidea

Jarraian, hutsuneak behar den bezala beterik nola geldituko liratekeen adibide bat eskaintzen dugu eta horietako hutsune bakoitza nola bete behar den azaltzen dugu.

Koadroa betetzeko orduan, ondoko hutsune mota topatuko duzu:

- **Testu Libreko Laukiak:** Lauki mota hauetan, dagokion hutsunean kokatu ondoren eta arratoiarekin barruan sakatu ondoren, eskatzen dizkizuten datuak idatziko dituzu. [\[Adibidea ikusi\]](#)

Hala eta guztiz, errazago izan dadin, segidan ikusiko duzun adibidean argi eta garbi zehazten da ze lauki mota den bakoitza:

1go Koadroa		
Etxebizitzaren Kokapen Datuak		
Kalea/ Plaza eta zenbakia (1)	Somera kalea, 12-3º ezk.	(1) Testu librea
Udalerrria (2)	Bilbo	(2) Testu librea
Lurraldea (3)	Bizkaia	(3) Testu librea
OHZ zk. finkoa (4)	xxxxxxx	(4) Testu librea

[Aurkibidea](#)

II Atala. Eskatzaileak

2.1. Nor izan daiteke eskatzailea eta zer nolako inplikazioak dauzka?

Aurkezpenean azaldu dugu zeintzuk diren etxebizitzaren erosleek laguntzak eskuratu ahal izateko bete behar dituzten baldintzak, beraz, suposatzen dugu puntu honetara heldu baino lehen balizko onuraduna izan zaitezkeela frogatu duzula.

Kasu horretan, komenigarria da ondorengo elementuak kontuan izatea:

1. Laguntzak eskuratzeko etxebizitza bakoitzeko, **eskari bakar** bat egon daiteke.
2. Eskari bakoitzean **pertsona bakar bat agertuko da eskatzaile gisa**, 2.garren koadroan bere datuak sartzen dituen pertsona izango delarik.
3. Eskabidearen buru bikotearen edozein kide edota edozein ezkonlagun izan daiteke.
4. Etxebizitzaren titularitateari edota jabetzari begira, hala nola betebeharreko baldintzei begira, ez dago inolako ezberdintasunik eskatzaile gisa, ezkonlagun/bikotekide gisa eta [bizikidetzaren unitateko](#) kide gisa agertzearen artean.
5. Beraz, eskatzailea izatearen inplikazio bakarra, eskatzailea Sailerako erreferentzia eta harremanetan jartzeko pertsona izango dela da, eta ondorioz, Espedientearen buru izango dela denerako.

[Aurkibidea](#)

2.2. E-mail helbidearen erabilgarritasuna

Identifikazioko lehenengo datuak sartu ondoren, ikusiko duzu, ahal izanez gero, mesedez harremanetan jartzeko e-mail helbide bat (etxekoa, lanekoa, konfiantzako norbaitena) ematea eskatzen dela.

Datu hori erraztea gomendatzen dizugu, posta normalaren bitartez bidaltzen jarraituko diren komunikazioak alde batera utziz, zure korreo

elektronikoa edukitzeak zurekin harremanetan errazago eta arinago jartzea ahalbideratuko baitigu.

[Aurkibidea](#)

2.3. Norberaren identifikazio dokumentazioa

Eskatzaileen artean ematen diren kasu ezberdinak direla eta, ez dugu **NAN**era mugatu nahi identifikazio elementu bat ematearen aukera. Agiri hau ez baduzu, beste batzuk eman ditzakezu, hala nola: pasaporte edota egoitza txartela, baita hauetan ere zenbakia eman beharko duzularik

[Aurkibidea](#)

2.4. Bizilekuaren helbidea. Bere garrantzia eta zer egin behar den berau aldatzen bada

Oso garrantzitsua da helburu honetarako ematen den helbidea balio duen erreferentzia egonkor bat izatea, hala nola, orain zure ohiko bizilekua denarena, zure gurasoena, konfiantzako pertsona batena eta abar.

Laguntzak ematearen prozesuko fase batzutan epeak eta datak guztiz erabakigarriak izan daitezke eta penagarria izango litzateke komunikazio arazoak egoteagatik, aukeraren bat galtzea edo informazioen bat ez heltzea.

Horrexegatik, gogoan izan, **hasieran emandako helbidean aldaketaren bat badago, lehenbailehen esan behar diguzula.**

Horretarako, idazki erraz bat egin beharko duzu, bertan egin behar den helbide aldaketa azalduko duzularik eta ondorengo datuak emango dituzularik:

- ✓ **Izen-Deiturak**
- ✓ **Identifikazio Agiriaren Zenbakia**
- ✓ **Espediente zenbakia**

Idazkia laguntza eskarian aipatutako titular guztiek sinatu beharko dute, **data eta lekua** jarritz.

Ondoren, idazki hori dagokizun [Lurralde Ordezkaritzan](#) entregatu ahalko duzu.

Bestela, postaz bidali dezakezu, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Lurralde Ordezkaritzara. Kasu honetan, gutun-azalean "**Gaia: Helbide Aldaketa**" jartzea gomendatzen dizugu.

"Helbide Aldaketa" eskariaren idazki eredua :

<u>GAIA: ALDAKETA ESPEDIENTEAN</u>		
Izena:		
Deiturak:		
Identifikazio Agiria eta Zbk:		
Espediente Zenbakia:		
Jaun agurgarriak:		
Idazki hau bidaltzen dizuet, mesedez, Etxebizitza Libre Erabilia Erosteko Diru-Laguntzen Programan dudan espedientean aldaketa bat egin dezazuen, Harremanetan Jartzeko Helbidearekin zerikusia duena:		
Orain nire espedientean dagoen helbidea:		
.....kaleazbk		
Posta Kodea:		
Udalerrria:	Lurraldea:	Herrialdea:
Harremanetan jartzeko jarri beharreko helbide berria:		
.....kaleazbk		
Posta Kodea:		
Udalerrria:	Lurraldea:	Herrialdea:
Eskarian jarritako ondorengo titular guztien sinadura,		
		Lekua eta data

[Aurkibidea](#)

2.5. Erreferentziako adibidea

Jarraian, 2garren koadroa ondo bete duzun frogatzeko baliagarria izango zaizun erreferentziako adibide bat aurkituko duzu.

Bai eskatzaileari dagokion koadroa (2garren koadroa) nola ezkontide edo bikotekideari dagokion koadroa (3garren koadroa) betetzerakoan, ondoko hutsune mota hauek aurkituko dituzu:

- **Testu Libreko Laukiak:** Lauki mota hauetan, dagokion hutsunean kokatu ondoren eta arratoiarekin barruan sakatu ondoren, eskatzen dizkizuten datuak idatziko dituzu. [\[Adibidea Ikusi\]](#)
- **Aukera Botoia duten Laukiak:** Nahikoa izango da aukera zuzenean sakatuz [\[Adibidea Ikusi\]](#)
- **Menu Zabalgarriko Laukiak:** Lauki ondoan topatuko duzun gezia sakatuz, menu edota aukera zerrenda bat irekiko da eta bertan zure kasura egokitzen den erantzunaren gain sakatu beharko duzu. [\[Adibidea Ikusi\]](#)

Hala eta guztiz, aurreko koadroan egin dugun bezala, errazago izan dadin, segidan ikusiko duzun adibidean argi eta garbi zehazten da ze lauki mota da bakoitza.

2garren Koadroa		
Eskatzailearen datuak		
Lehenengo deitura: (1)	Gómez	(1) Testu librea
Bigarren deitura: (2)	Alvárez	(2) Testu librea
Izena : (3)	Jaione	(3) Testu librea
Sexua: (4)	Gizona <input type="checkbox"/> Emakumea <input checked="" type="checkbox"/>	(4) Aukera Botoia
Jaiotze data: (5)	Eguna: 08 Hila: 05 Urtea: 1977	(5) Testu librea
Telefona: (6)	944587693	(6) Testu librea
Telefona 2: (7)	659862435	(7) Testu librea
e-mail helbidea: (8)	jaione@hotmail.com	(8) Testu librea

NAN	15896513-I	(9) Menu zabalgarria
(9)		
Helbidea		
Kalea/plaza eta zenbakia: (10)	Zabalbide, n° 13-2 ^a	(10) Testu librea
Posta Kodea: (11)	48013	(11) Testu librea
Udalerrria: (12)	Bilbao	(12) Testu librea
Lurralde: (13)	Bizkaia	(13) Testu librea
Herrialdea: (14)	España	(14) Testu librea
Egoera zibila: (15)	Ezkongabea	(15) Menu zabalgarria

[Aurkibidea](#)

2.6. Ezkontide edo bikotekidearen nortasuna eta datuak

Eskatzailea ezkondua badago edota beste pertsona batekin [ezkontzaren antzeko harreman iraunkorra](#) badu, bere bikotekidea eskarian sartu beharko du nahitaez, eskatzaileen sailean horretarako utzi den espazioan, 3garren koadroan.

Ikus dezakegun bezala, helbidea izan ezik, eskatzaileak ematen duena hartuko dela beti erreferentziatzat, eskatzen diren datuak 2garren koadroan eskatzen diren berdinak dira.

[Aurkibidea](#)

2.7. Erreferentziako adibidea

Jarraian, ikus dezakezu 3garren koadroa behar bezala bete ondoren nola gelditzen den:

3garren Koadroa		
Ezkontide edo bikotekidearen datuak		
Lehenengo deitura: (1)	Arriortua	(1) Testu librea
Bigarren deitura: (2)	Etxebarrieta	(2) Testu librea
Izena : (3)	Gorka	(3) Testu librea
Sexua: (4)	Gizona <input checked="" type="checkbox"/> Emakumea <input type="checkbox"/>	(4) Aukera Botoia
Jaiotze Data: (5)	Eguna <input type="text" value="05"/> Hila <input type="text" value="06"/> Urtea <input type="text" value="1976"/>	(5) Testu librea
Telefonoa: (6)	94758696	(6) Testu librea
Telefonoa 2: (7)		(7) Testu librea
e-mail helbidea: (8)	gorka@hotmail.com	(8) Testu librea
<input type="text" value="19562143-K"/>		(9) Menu zabalgarria
NAN <input type="text" value="19562143-K"/> (9)		
Egoera zibila: (10)	Ezkongabea <input type="text" value="Ezkongabea"/>	(10) Menu zabalgarria

[Aurkibidea](#)

III Atala. Elkarbizitza-Unitatea eta titularrak:

3.1. Eskatzaile; elkarbizitza unitateko eta titular figuren arteko ezberdintasuna

Elkarbizitza unitatea eta titularitatea kontzeptuak sarritan akats ugari sortzen dituztenez, biak zehazki azaltzen saiatuko gara:

→ **Elkarbizitza unitatea:** Laguntzak jaso ditzaken etxebizitzan biziko diren eta eskarian agertuko duten pertsonak osatuko dute.

Honen osaketari dagokionez, elkarbizitza-unitatea etxe berean bizi diren edo biziko diren bi pertsonak edo gehiagok osatzen dute. Pertsona horiek era hauetan elkartuak egon daitezke: ezkontzaren bidez edo [ezkontzaren antzeko harreman iraunkorraren bidez](#), adopzioz edo [odolkidetasunez](#) (hirugarren gradua arte), eta [kidetasunez](#) (bigarren gradua arte). Ez da onartuko bizikidetzaren adiskidetasun edo bizikidetasun arrazoiengatik.

→ **Titularitatea:** Titularitateak etxebizitzaren jabetzan partizipazio maila zein den zehazten du, eta erosketaren eskritura publikoan agertu beharko da.

[Aurkibidea](#)

3.2. Etxebizitzaren titular gisa agertzeko orduan kontuan izan beharreko gaiak

Dagoeneko salerosketa-kontratu pribatua sinatu baduzu, seguruen titularrak nortzuk diren zehaztu duzula. Pertsona hauek eskarian derrigorrez sartu behar dituzu.

Hori bai, eskaria betetzen jarraitu baino lehenago, komenigarria da ondorengo elementuak kontuan izatea:

1. Elkarbizitza-unitateko **diru-sarrerak zenbatzerakoan** eta ondorioz exijitzen diren baldintzekin bat datozen frogatzeko, etxebizitzaren titular guztien diru- sarrerak izango dira kontuan.

2. Eskarian etxebizitzako titular gisa agertzen diren pertsonak laguntzen onuradunak suertatzen badira, **ezingo dira agertu** etxebizitza erosteko beste **laguntza-eskari batean**.
3. Eskarian agertzen den pertsonetako bat Etxebiden **izena eman badu**, salerosketa kontratu bat sinatzerakoan, Etxebiden bajan emango zaio zuzenean, hortik aurrera ez baitu beteko etxebizitza beharraren betekizuna.

[Aurkibidea](#)

3.3. Titularrak izango ez direnak, derrigorrez sartu behar dira laguntzen eskari-orrian?

Bai; [bizikidetza unitatearen](#) barne egongo diren pertsona guztiak sartu behar dira eskarian, nahiz eta ondoren titularrak ez izan.

Berez, 4garren Koadroan, aukera hau argi eta garbi ikusten da, bertan aukera ematen baitzaio eskatzaileari titularra ia nor izango den eta nor ez erabakitzeko.

Baina, gainera, kontuan izan behar da eskaeran bizikidetza unitateko kide guztiak sartzea **ondorio positiboak** eduki ditzakeela:

- ✓ Elkarbizitza-unitatearen diru-sarreraren maila kontuan izateko orduan, [diru-sarrera haztatuak](#) aztertzen dira.

Era honetan, unitate-bizikidetza batek jasotzen dituen guztirako diru-sarrerak begiratzerakoan, ez da batuketa aritmetiko sinple bat egiten. Batuketa egiterakoan, emaitzan eragina izango duten beste elementu batzuk sartzen dira, hala nola, diru-sarrerak ematen dituzten pertsona kopurua eta **bizikidetza unitatea osatzen duten pertsona kopurua**.

[Aurkibidea](#)

3.4. Erreferentziako adibidea

4garren koadroa betetzerakoan, 7 lauki ezberdin topatuko dituzu:

1go Zutabea (NAN, pasaporte edo egoitza txartela): Espazio honetan, lehengo, emango duzun identifikazio agiri mota zehaztu behar duzu; horretarako gezia sakatu behar duzu eta besterik gabe aukera bat hartu. [[Menu Zabalgarriaren adibidea ikusi](#)]

Ondoren, ondoko laukian, teklatuarekin NAN, pasaporte edo egoitza txartelaren zenbakia idatzi behar duzu; horretarako, idatzi aurretik hutsunean bertan sakatu behar duzu arratoiarekin. Testu libreko lauki bat da. [[Testu libreko adibidea ikusi](#)]

2garren Zutabea (Izena eta deiturak): Testu libreko testua da, beraz, behin hutsunean sakatu ondoren, eskatzen diren datuak idatzi ahalko duzu. [[Testu libreko adibidea ikusi](#)]

3garren Zutabea (Jaiotze data): Hau ere testu libreko laukia da, hori bai betetzen duzunean Laguntzan ematen dizkizuten argibideak jarraitu beharko dituzu [[Testu libreko adibidea ikusi](#)]

4garren Zutabea (Ahaidetasuna): Menu zabalgarri bat aurkituko duzu berriro ere, non adierazi beharko duzun bizikidetza unitateko kide horrekin zuk edo zure bikotekideak duen lotura zein den. [[Menu Zabalgarriaren adibidea ikusi](#)]

5garren Zutabea (Sexua): Kasu bakoitzean, egokia den erantzunean, Gizona ala emakumea, zapaldu beharko duzu saguarekin [[Aukera Botoiko Laukian ikusi adibidea](#)]

6garren Zutabea (Egoera Zibila): Menu zabalgarri bat aurkituko duzu non kasu bakoitzean egokia den erantzuna zapaldu beharko duzun [[Menu Zabalgarriaren adibidea ikusi](#)]

7garren Zutabea (Etxebizitzaren titularra): Bizikidetza unitateko kide hori etxebizitzaren titularra izatea nahi baduzu horretarako bideratu den gunean zapaldu beharko duzu; aurkakoan berriz, pertsona hori etxebizitzaren titularra izatea nahi ez baduzu, ez duzu ezer egin beharko,

utzi atala zurian eta hurrengo zutabera pasa [[Aukera Botoiko Laukiaren adibidea ikusi](#)]

Beraz, 4garren Koadroa, behar den bezala betea horrela geldituko litzateke:

4garren Koadroa			
1 Kidea			
NAN	Izen-Deiturak	Jaiotze-Data	Ahaidetasuna
<input type="text" value="NAN"/> <input type="text" value="15456752"/>	Leire Álvarez Gómez	Día 06 Mes 02 Año 1983	<input type="text" value="Seme-alaba"/>
Sexua	Egoera Zibila	Etxebizitzaren titularra	
<input type="text" value="E"/>	<input type="text" value="Ezkongabea"/>	<input type="text"/>	

[Aurkibidea](#)

IV Atala. Beste betekizun Batzuk- Etxebizitza Beharra:

Etxebizitza Libre Erabiliaren Programa, baliabide ekonomiko ugari eduki ez arren, arrazoi batengatik edo bestegatik etxebizitza merkatu librean joan behar izan dutenei dago zuzendua, ekimen honen asmoa pertsona hauei bere etxebizitza beharrari erantzuteko hasi duten bidean laguntzea delarik.

Benetako etxebizitza beharra dutenei dago zuzendua, eta ondorioz, bere etxebizitza bakarri erosi behar dutenei, hau bere [ohiko bizileku iraunkorra](#) izango delarik.

Hori dela eta, arreta gehienarekin kontrolatzen den betebeharra etxebizitzaren beharraren egiaztapena da.

[Aurkibidea](#)

4.1. Nortzuek egiaztatu behar dute etxebizitza premia?

Bizikidetzaren unitatea osatzen duten kide guztiek, eta ondorioz, eskaeran agertzen diren guztiek, laguntzak eskatzen dituzten datan, **ez dutela izango jabetzan** inolako etxebizitzarik, [jabetza soilik](#), [azalera-
eskubiderik edo usufrukturik](#) ziurtatu beharko dute.

Bizikidetzaren unitatea osatuko duten kide guztiei buruz hitz egiten gaudela azpimarratzen dugu, titularrak izango diren ala ez alde batera utziz.

[Aurkibidea](#)

4.2. Zer gertatzen da izena eman dutenetakoren bat etxebizitza baten jabea izan bada orain dagoeneko ez delarik?

Pertsona bat etxebizitza baten jabea izan dena eta orain dagoeneko ez dena, printzipioz, Etxebizitza Librea Erosten Laguntzen onuraduna izateko aukera du.

Aitzitik, kontuan izan behar du, irregulartasunak ekiditeko, eta dagokion frogapenak egiteko, araudiak ezartzen duela nahiz eta laguntzak eskatzeko unean jabea ez izan, **jabetza galtze hori laguntzak eskatu diren datarekiko aurreko bi urtetan eman bada**, ondoko informazioa aurkeztu beharko dela:

- a) Etxebizitza babes publikokoa bazen, esleipen kodea.
- b) Beste motatako etxebizitza izatekotan, etxebizitzaren besterenganatze-eskritura publikoa edo [azalera-eskubidearen](#) edo [gozamen](#) eskubidearen amaieraren egiaztatzea aurkeztu beharko da.

[Aurkibidea](#)

4.3. Etxebizitza eduki arren, badago salbuespenik dirulaguntzak eskatzearen aukera ematen duena?

Bai; [bizikidetza unitateko](#) kideren batek etxebizitza bat jabetzan, [jabetza soilik](#), [azalera-eskubidean](#) edo [usufruktuan](#) izan arren, etxebizitza betebeharrarekin betetzen dela onartu daiteke, betiere ondorengo egoeraren bat betetzen dela dokumentuz ziurtatzen bada:

1.- Zerbitzu municipalak, inspektio teknikoa egin ondoren, etxebizitza hori **aurri egoeran dagoela** eta eraisteko agindupean dagoela aitortzen denean.

Kasu honetan, egoera hau betetzen den udaleko ziurtagiria aurkeztu beharko da.

2.- Etxebizitza **desjabetze-espediteren** baten mendeko ondasun eta eskubideen behin betiko zerrendan barne hartuta dagoela.

3.- 2003ko abenduaren 31n Euskal Autonomia Erkidegoko Aldizkarian argitaratu zen Ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko ekintza babestuak gaiari buruz, abenduaren 30eko [317/2002 Dekretuan](#) ezarritako gutxieneko bizigarritasun-baldintzak ez betetzea etxebizitzak, 36 metro koadratuko edo gutxiagoko [azalera](#)

erabilgarria duelako edo aipatutako Dekretuan aurreikusten diren egoeretako bat ematen delako.

Ez dira kontuan hartuko eraikin-konponbideak onartuko dituzten etxebizitzaren hutsuneak, eta teknikari eskudun batek egindako txosten bat aurkeztu behar izango da.

4.- **Banantze edo dibortzio** prozedura bat egin ondoren, eta betiere eskatzaileak beste etxebizitzarik ez badu, eta aurreko etxebizitza familiarra, judizialki, beste ezkontideari eman bazaio etxebizitza gisa bi urte baino gehiagorako.

Bikotearen ohiko etxebizitza salduko balitz, eta eskatzailearen partaidetzaren balioa, eskrituraren arabera, **75.000** euro edo gutxiagokoa bada.

5.- Eskatzailea **herentziaz lortutako edo gurasoek emandako etxebizitza baten edo batzuen titularkidea bada**, eta betiere titularkidetzaren portzentajea %50 edo gutxiago bada, eta etxebizitza guztien partaidetzaren balioa, tasazio informearen arabera, 72.000 eurokoa edo gutxiagokoa bada.

6.- Eskatzaileen artean bizikidetzaren unitatearen partaide izango den norbait badago, eta **mugikortasun gutxitu iraunkorreko** ezgaitua dela egiaztatzen badu .

7.- **70 urte edo gehiagoko** adindunak, aurreko atalean aipatutako araudiaren arabera **irisgarritasun baldintzak** ez dituen etxebizitza baten titular direnak

8.- Bizikidetzaren unitatea 5 kidek edo gehiagok osatzen badute, edo Familia Ugaria bada, eta kideetako bat neurri hauetako etxebizitza baten titularra bada: **120 metro koadratuko edo gutxiagoko azalerako** etxebizitza, non pertsona bakoitzeko 15 metro koadro erabilgarri baino gutxiagoko ratioa ematen den.

10.- Etxebizitza hirigintzako jardueraren eraginpeko higiezina dagoen **Arloari** ez dagokion udalerrri batean egotea. Higiezin hori utzarazi eta berriro sartuko duten bizikidetzak-unitateak okupatuko du legalki.

Baina etxebizitza beharrekiko ezarritako salbuespenen bat betetzen duen etxebizitza hori, etxebizitza libre erabilia erosteko laguntzen aukera izan nahi duenaren jabetzakoa bada, dagokionak etxebizitza Eusko Jaurlaritzaren eskutan jarri beharko du. Ondoren, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak edo honek aukeratzen duenak etxebizitza hori erosteko erregimenean, errentamenduan edo truke jarriko du, dagozkien baldintza eta betekizunetan.

[Aurkibidea](#)

4.4. Salbuespeneko egoerak egiaztatzeko aurkeztu beharreko agiriak. Nola lortu daitezke?

1. Etxebizitza aurri egoeran eta eraispin-agindupean dagoela ziurtatzen duen egiaztigiri teknikoak.

Egiaztigiri hori Udaleko Zerbitzu Teknikoek ematen dute, beraz, bertara jo beharko duzu lortzeko.

Etxebizitza aurri egoeran dagoela adierazi badute, ohizkoena zure etxera erabaki horren kopia bat heldu izana da; hala eta guztiz, horrela ez bada edo agiria ez baduzu topatzen, Udaletxera joatea besterik ez duzu behar, eta bertan doakoa den kopia bat eskatu dezakezu.

Helbidea eguneratua duen NANA aurkeztu beharko duzu, edo Nortasun Agirian agertzen den beste etxe batean bizi bazara, erroldatze ziurtagiria aurkeztu beharko duzu, Udaletxean eskatu dezakezula.

2. Desjabetze espediente batengatik eraginda dagoen ondasun eta eskubideen behin betiko erlazio batean sartuta dagoen etxebizitzaren egiaztigiria

Egiaztigiri hori Udaleko Zerbitzu Teknikoek ematen dute

Aurreko egiaztagiriarekin bezala, Etxebizitza desjabetze-espediteren baten mendeko ondasun eta eskubideen behin betiko zerrendan barne hartuta badago, ohizkoena zure etxera erabaki horren kopia bat heldu izana da; dena dela, agiririk ez baduzu, Udaletxera joatea gomendatzen dizugu, eta bertan kopia bat eskatu dezakezu.

Era berean, helbidea eguneratua duen NANA aurkeztu beharko duzu, edo Nortasun Agirian agertzen den beste etxe batean bizi bazara, erroldatze ziurtagiria aurkeztu beharko duzu, Udaletxean eskatu dezakezula.

3. Etxebizitzak bizigarritasun-baldintzak betetzen ez dituen ziurtagiri teknikoa.

Normalean, ziurtagiri hori Udaletxeko Zerbitzu Teknikoek ematen dute.

Komenigarria da beti NAN eguneratuarekin joatea, bertan eman beharreko urratsez eta aurkeztu behar den dokumentazioaz informatu ahal izateko

4. Banantze edo dibortzioko kasuan, hitzarmen erregulatzailaren eta epai judizial irmoaren fotokopia..

Normalena ezkontide ohi bakoitzak dokumentu biak edukitzea da, baina horrela ez izatekotan eta bikotekide ohiari ez bazaio kopia bat eskatu nahi, zure udalerriko Lehen Instantziako Epaitegira joan zaitzke, non kasuaren arabera, banantze edo dibortzioko epai judizialaren kopia emango dizuten.

5. Banatze eta Oinordetza Onartu Izanaren Eskritura

Bere partaidetza %50 edo gutxiagoa izanik, Etxebizitzaren oinordekidea dela frogatzeko, ziurtatu dezakeen dokumentazio ofiziala aurkeztu beharko da, hau da, [banatze eta oinordetza onartu](#) izanaren eskritura publikoa.

Tramite hori egin bada, normalena dokumentu biak izatea da, eta kasu horretan Etxebizitza Sailean dokumentuen kopia batekin batera, jatorrizkoak aurkeztu beharko dira, erkatzeko.

Edozein arrazoiengatik, nahiz eta eskritura publikoa egin, dokumentu horiek ez badituzu, eskriturak sinatu zenituzten Notarioarengana joan zaitzke eta

kopia simple bat eskatu. Kasuen arabera, izan daiteke zenbait egun irautea emateko eta kostu ekonomikoren bat edukitzea.

6. Dohaintzaren eskritura.

Eskatzailea **gurasoek emandako etxebizitza bat edo batzuen titularkidea dela**, eta betiere titularkidetzaren portzentajea %50 edo gutxiago dela, eta etxebizitza guztien partaidetzaren balioa, tasazio informearen arabera, 72.000 eurokoa edo gutxiagokoa dela frogatzeko, guzti hau ematen dela ziurtatzen duen egiaztagiri ofiziala aurkeztu behar da, hau da, dohaintzaren eskritura .

Eskritura publikoa izan beharko du, Notario aurrean sinatua eta normalean sinatzaileek gordetzen dute. Etxebizitza Sailean dokumentuaren kopiarekin batera, jatorrizkoak aurkeztu beharko dira, erkatzeko.

Edozein arrazoiengatik, nahiz eta eskritura publikoa egin, dokumentu horiek ez badituzu, eskriturak sinatu zenituzten Notarioarengana joan zaitezke eta kopia simple bat eskatu. Kasuen arabera, izan daiteke zenbait egun irautea emateko eta kostu ekonomikoren bat edukitzea.

7. Etxebizitzaren azalera erabilgarria agertzen den etxebizitza jabetzaren eskritura publikoa edo azalera ziurtatzen duen ziurtagiri teknikoa

Orokorrean, etxebizitzaren eskritura publikoan etxeak duen [azalera erabilgarria](#) eta [azalera eraikita](#) agertzen da, eta kasu horretan, Etxebizitza Sailean dokumentuaren kopiarekin batera, jatorrizkoak aurkeztu beharko dira, erkatzeko.

Eskrituran datu horiek agertzen ez badira, oso arraroa dela, ziurtagiri tekniko gisa, etxebizitza erosteko mailegua eskatzerakoan tasazio zerbitzu homologatuek egiten duten tasazioa aurkeztu daiteke. Baita kasu honetan ere, originala eta kopia aurkeztu beharko dira.

[Aurkibidea](#)

4.5. Zer gertatzen da gaur egun bizikidetza unitateko norbait etxebizitzarik ez badu, baina azken 10 urteotan etxebizitza bat erosteko laguntzaren baten onuraduna izan bada?

Zure [bizikidetza unitateko](#) kideren batek etxebizitza erosteko, bai babestua nola libre, laguntza ekonomikoren bat jaso badu azken 10 urteotan, **ezingo** dituzu formulario honetan eskatzen diren **Laguntzak eskuratu**, edo berdina dena, zure eskaria ez da onartuko.

[2006ko abenduaren 29koa, etxebizitza erosteko finantza-neurriei buruzko Aginduan ezartzen denaren arabera](#), "inor ezin izango da etxebizitza libre erabilia eskuratzeko finantza-neurrien onuraduna izan azken hamar urteetan finantza-laguntza horien onuraduna izan bada."

[Aurkibidea](#)

4.6. Erreferentziako adibidea

Etxebizitza beharraren eta etxebizitza erosteko laguntzak jaso izanaren atal hau betetzea oso sinplea da. Ondorengo galderak erantzun behar dituzu soilik:

4.1 galdera:

Galdera honen bitartez eskaria aurkezteko momentuan bizikidetza unitateko kideren batek etxea duen ala ez frogatu nahi da.

Horretarako, arratoiarekin BAI eta EZ ondoan dagoen hutsenetako batean sakatu beharko duzu. [\[Aukera botoiaren adibidea ikusi\]](#)

A. Zuk edo elkarbizitza-unitatearen kideren batek gaur egun etxebizitzaren baten jabetza, azalera-eskubidea edo gozamen –eskubidea al duzue?

Bai

Ez

Zure erantzuna ezezkoa izan bada, ez duzu agiririk aurkeztu behar, guk egia dela konprobatuko baitugu. Besterik gabe, zoaz B galderara.

Aitzitik, bizikidetza unitateko norbaitek gaur egun etxebizitzaren bat badu, zure eskaria onartua izan ahal izateko, beharrezkoa izango da lehen aipatutako salbuespenen bat betetzea.

Horrela bada, zure kasura egokitzen den laukia aukeratu eta sakatu eta arretaz irakurri zein den egoera hori egiaztatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Era berean, salbuespen bakoitzaren ondoren, ze dokumentazio aurkeztu behar duzun esaten dizugu, eta bertan sakatzen baduzu, leiho berri bat irekiko da, bertan dokumentazio hori non topa dezakezun aipatzen delarik:

<input type="checkbox"/> Etxebizitza aurri egoeran dago deklaraturata eta eraisteko agindupean dago
Aurkeztu beharreko agiriak: Udaleko Zerbitzu teknikoaren egiaztatzea
<input checked="" type="checkbox"/> Etxebizitza desjabetze espedienteraren baten mendeko ondasun eta eskubideen behin betiko zerrendan barne hartuta dago
Aurkeztu beharreko agiriak: Aipatutako zerrenda
<input type="checkbox"/> Banantze edo dibortzio-prozeduraren ondoren etxebizitzaren erabilera bere ezkontideari esleitu zaio.
Aurkeztu beharreko agiriak: Banantze edo dibortzio kausan, hitzarmen erregulatuaren eta epai judicial irmoaren fotokopia
<input type="checkbox"/> Etxebizitza bat edo batzuen oinordekide zara, baina zure partaidetza portzentaiak %50 edo gutxiagokoak dira, eta partaidetza guztien balioa ez da 72.000 euro baino gehiagokoa.
Aurkeztu beharreko agiriak: Oinordetza onartu izan, eta banatzearen eskriturak.
<input type="checkbox"/> Gurasoen dohaintzaren bidez, etxebizitza bat edo batzuen titularkide zara, baina zure partaidetza portzentaiak %50 edo gutxiagokoak dira, eta partaidetza guztien balioa ez da 72.000 euro baino gehiagokoa.
Aurkeztu beharreko agiriak: Dohaintzaren eskritura
<input type="checkbox"/> Etxebizitzak 36 metro karratu edo gutxiago ditu, edo ez ditu indarrean dauden arauak ezarritako gutxieneko bizigaitasun-baldintzak betetzen

Aurkeztu beharreko agiriak: Egiaztagiri teknikoa



Bizikidetza unitateko kideren batek ezgaitasun baten ondorioz mugikortasun urri iraunkorra du, eta etxebizitzak kokaleku duen eraikina ez ditu betetzen irisgarritasun baldintzak, indarrean dauden arauen arabera

Aurkeztu beharreko agiriak: Egiaztagiri teknikoa



70 urte edo gehiago duzu, eta etxebizitzak kokaleku duen eraikinak ez ditu betetzen irisgarritasun baldintzak, indarrean dauden arauen arabera

Aurkeztu beharreko agiriak: Egiaztagiri teknikoa



Etxebizitza 120 metro karratuko edo txikiagoa da, bizikidetza-unitatea Familia Ugaria da, eta pertsonako ratioa 15 metro karratu erabilgarri baino txikiagoa da

Aurkeztu beharreko agiriak: Etxebizitzaren jabetza-eskritura edo etxebizitzaren azalera erabilgarriaren ziurtagiri teknikoa



Etxebizitza 120 metro karratuko edo txikiagoa da, bizikidetza unitatea 5 kidekoa edo gehiagokoa da eta pertsonako ratioa 15 metro karratu erabilgarri baino txikiagoa da

Aurkeztu beharreko agiriak: Etxebizitzaren jabetza-eskritura edo etxebizitzaren azalera erabilgarriaren ziurtagiri teknikoa eta bizikidetza-unitatearen errolda ziurtagiria, etxebizitza horretan kide bakoitza noiz erroldatu zen adieraziz.

4.2 eta 4.3 galderak:

Oraingo honetan, zuk edo bizikidetza-unitatearen kideren batek, nahiz eta orain etxebizitzarik ez eduki, ia **bi azken urteotan etxebizitza libre edo babesturik eduki al duzuen** galdetzen da.

Horretarako, arratoiarekin BAI eta EZ ondoan dagoen hutsenetako batean sakatu beharko duzu. [\[Aukera botoiaren adibidea ikusi\]](#)

B. Egun etxebizitzarik ez baduzu ere, zu edo bizikidetza-unitateko inor izan al zarete azken bi urteotan etxebizitzaren baten azalera-eskubidearen edo usufruktuaren jabe edo titular?



Bai

X Ez

C. Egun etxebizitarik ez baduzu ere, zu edo bizikidetzta-unitateko inor izan al zarete azken bi urteotan sustapen publiko edo pribatuko babes ofizialeko etxebizitzaren baten onuradun?



Bai

X Ez

4.4 galdera:

Galdera honetan, nahiz eta orain etxebizitarik ez eduki, ia noizbaiten etxebizitarik eduki duzuen eta bere erosketarako azken hamar urteotan diru-laguntzaren bat jaso duzuen galdetzen da.

Gogoan izan, **zure erantzuna baiezkoa bada ez duzula aukerarik izango Laguntza Programa honetan**

Aurreko galderetan bezala, galderari erantzuteko, arratoiarekin BAI eta EZ ondoan dagoen hutsenetako batean sakatu beharko duzu. [\[Aukera botoiaren adibidea ikusi\]](#)

C. Azken hamar urteotan zu edo zure elkarbizitza-unitatearen edozein kide etxea eskuratzeko finantza-laguntzen onuraduna izan zarete?



Bai



Ez

[Aurkibidea](#)

V Atala. Aurkeztu beharreko agiriak:

Aurkezpen eta ondorengo ebazpen prozesua beharrik gabe ez luzatzeko eta bueltaka eta gestioak behin eta berriro ez egiteko, oso garrantzitsua da atal honetan esaten duguna arreta osoz irakurtzea.

Aurkezten diren eskari ugari hain zuen, agiri zuzenak ez aurkezteagatik errefusatzen dira, dokumentazioa falta delako edo eskatzen dena ez delako aurkezten.

[Aurkibidea](#)

5.1. Agirien xehetasuna eta berau ez daukagun kasuetan nola eskuratu

→ Norberaren nortasuna egiaztatzeko:

- Bizikidetzaren Unitatean 14 urte baino gehiago dituzten kideen Nortasun Agiri Nazionalaren, Egoitza Txartelaren edo Pasaportearen fotokopia.:

Eskarian aipatutako identifikazio dokumentuaren fotokopia aurkeztu beharko duzu, honek datuak eguneratuak eduki behar dituelarik.

- Famili Liburuaren Fotokopia, bizikidetzaren unitatean 18 urte baino gutxiago dituzten seme-alabak badaude:

Famili Liburua galdu baduzu edo hondatua badago, zure udalerriko Erregistro Zibilean Liburuaren kopia eska dezakezu.

- Famili Ugariaren egiaztagiria, hala badagokio

Euskadin, Famili Ugariaren Titulua Foru Aldundiek ematen dute eta zenbait onuren eskubidea ziurtatzen du.

Titulua semea edo alabak 21 urte (26 ikasten badabil) izan arte balio du, betiere famili barnean ez badira aldaketak ematen. Iraungitze-data dokumentuan dator eta data bera heldu baino lehen berritu beharko da baliagarria izaten jarraitzea nahi badugu.

[Aurkibidea](#)

→ **Diru-sarrerak egiaztatzeko:**

Titular guztiek ziurtatu behar dituzte diru-sarrerak

- **PFEZ aitortu beharra baduzu edo aitortu baduzu, honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzu:**

- Laguntza-eskaera hau aurkezten denean mugaeguneratuta dagoen azken zergaldikok **Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpenaren fotokopia, jatorrizkoarekin batera, erkatzeko.**
- **Kotizazio gabeko prestaziorik** jasoz gero, (aurretik Segurtasun sozialean kotizatu izan gabe jaso daitezkeenak) **dagokion egiaztageria.**

- **PFEZ aitortu beharrik ez baldin baduzu (eta ez duzu aitortu) jarraian adierazten diren agiriak aurkeztu beharko dituzu:**

- Kasu guztietan::

- **Zergaldi horretan** (eskaera hau aurkezten denean amaituta dagoen azken ekitaldian) **PFEZa aitortu beharrik ez duzula egiaztatzen duen Foru Ogasunaren egiaztageria**
- Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrek egindako **lan-bizitzako egiaztageria.** (901 502050 www.seg-social.es)

- **Beste konturako langilea bazara**, zergaldi horretan kontzeptu guztiak direla-eta jaso dituzun sarrera gordinak adierazten dituen agiria, enpresak edo enplegu-emaileak egina.

- **Pentsioduna bazara edo bestelako beka, prestazio edo sorospenak** (gizarte ongizatekoak barne) jasoz gero, dagokion egiaztageria, ekitaldi horretakoa.

→ ETXEBIZITZAren egoerari eta eskuraketari dagozkienak:

- Jatorrizko salerosketaren kontratua
- Etxebizitza [tasatzeko](#) txostena, Finantza Erakundeen tasazio zerbitzuek edo berariaz sortutako Erakundeek egina (hipoteka-merkatua arautzen duen martxoaren 25eko 2/1981 Legea garatzen duen martxoaren 17ko 685/1982 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera sortutako erakundeak)
- Udal egiaztageria, etxebizitza antolamendutik kanpo ez dagoela adierazten duena.
- Eskabidea ebazteko Ordezkaritzak beharrezkotzat jotzen duen beste edozein agiri.

5.2. Eskabide bakoitzaren egoera partikularren arabera eskatutako agiriak:

Jarraian taula errez bat aurkezten dugu eta bertan eskatzaile bakoitzak, planteatzen diren galderari emandako erantzunaren arabera, ze dokumentazio aurkeztu behar duen esaten da.

→ **Identifikazio pertsonala egiaztatzeko:**

Formularioko galdera	Erantzuna	Emandako erantzunaren arabera, aurkeztu behar den dokumentazioa
1. Zenbat kidek osatzen dute bizikidetza unitatea?	Kide zenbakia	Bizikidetza unitatean 14 urte baino gehiago daukaten kideen Nortasun Agiri Nazionalaren, Pasaportearen edota Egoitza txartelaren fotokopia.
2. Adingabeko seme-alabak dituzu eta zurekin biziko dira?	BAI	Famili liburuaren fotokopia
	EZ	
3. Familia Ugaria zarete?	BAI	Famili Ugariaren egiaztagiria
	EZ	

→ **Diru-sarrerak egiaztatzeko:**

A) A) ERRENTAKO AITORPENA EGITEKO OBLIGAZIOA DUTENEK:		
Formularioko galdera	Erantzuna	Emandako erantzunaren arabera, aurkeztu behar den dokumentazioa
4. Errentaren aitortpena aurkeztu duzu/duzue?	BAI	- Eskaera hau aurkezten denean mugaeguneratuta dagoen azken zergaldiko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpenen jatorrizkoa edo fotokopia/k erkatua
	EZ	- Irregularitasun hau konpondu behar duzu
5. Kotizazio gabeko prestazioren bat jasotzen duzu?	BAI	- Horretaz gain, kotizazio gabeko prestaziorik jasoz gero, (aurretik Segurtasun sozialean kotizatu izan gabe jaso daitezkeenak) dagokion egiaztagiria.
	EZ	
B) ERRENTAREN AITORPENA AURKEZTEKO OBLIGAZIOARIK EZ DUTEN PERTSONAK:		

Formulario galdera	Erantzuna	Emandako erantzunaren arabera, aurkeztu behar den dokumentazioa
6.- Errentaren aitortzea egitekin salbuetsita zaude/zaudete?	BAI	- Zergaldi horretan (eskaera hau aurkezten denean amaituta dagoen azken ekitaldian) PFEZ aitortu beharrik ez duzula egiaztatzen dun Foru Ogasunaren egiaztatzea - Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorra egindako lan-bizitzako egiaztatzea .
7.- Besteren kontura egiten duzu/duzue lan?	BAI	Zergaldi horretan kontzeptu guztiak direla-eta jaso dituzun sarrera gordinak adierazten dituen agiria, enpresak edo enplegu-emaileak egina
	EZ	
8. Pentsionista al zara edo bestelako beka, prestazio, edo sorospenak (gizarte ongizatekoak barne) jasotzen al dituzu/dituzue?	BAI	Ekitaldi horri dagokion ziurtagiria
	EZ	

Gogoan izan orain azaldutako dokumentazioaz gain, etxebizitza beharraren baldintzaren salbuespenen artean aurkitzen bazara, [Etxebizitzaren Beharrari](#) dagokion sailean aipatutako dokumentazio aurkeztu beharko duela.

[Aurkibidea](#)

5.3.-Data eta Sinadura:

Bukatzeko, sinaduraren gaia azpimarratu nahi dugu.

Eskaeraren formularioan ikus dezakezunez, sinatu behar duena ez da bakarrik eskatzailea, **etxebizitzaren titular guztiek** sinatu behar dute.

Era berean, kontuan izan behar duzu edozein dokumentu edo Espedientearen Aldaketarako eskaeraren bat aurkezten baduzu, titular guztiek sinatzen jarraitu beharko dutela.

[Aurkibidea](#)